

## GAIZKI ERRANKA

# Lau indiar eta desinfektatzaile pixka bat



**Santi Leoné**  
@ororostorm

Duela ez hainbertze, Espainiako telebistaz telebis-  
ta ibili zen, nazionalismo katalanaren oinarri ahulak  
agerian uzten. Hala iragartzen zuten: “Josep Borrellek  
bi minutuan desegiten ditu independentismoaren ar-  
gudioak”. Edo beharbada minutu batean zen: zenbaki  
horrekin adierazi nahi izaten zen lana erraza zela, eta,  
eraitsi beharreko argudioak, munta gutikoak.

Nik ezkerrekoa omen den umorezko saio batean ikusi nuen. Metodoa zen harrigarriena: bi topiko eta lau sinplekeria bateaz, frogatutzat ematen zuen Katalunia Espainia izan dela, dela eta izan behar duela. Halere, zer erraten zuen baino interesgarriagoa da zer gorpuzten zuen: herritar unibertsala, zibilizatuia, hain zuzen ere katalana izateari uko egin eta espainola izatea erabaki edo onartu duen neurri berean.

Kataluniako historia bezala,  
AEBetako azaldu du oraindik orain  
Borrellek, metodo berbera erabiliz: bi  
topiko eta lau orokorkeria

Nolanahi ere, ematen zituen azalpen haiek guziak aski ez eta Katalunia desinfektatu egin behar zela ere erran zuen gero Kataluniako *problema* konpontzeko asmoa omen zuen ezkerreko gobernu bateko ministro bihurtuko zenak.

AEBetan ez dute desinfektatzailerik behar; izan ere, horixe da –betiere Josep Borrellen arabera– beren historia murriztean egin duten lan bakarra: lau indiar hil. Hiru ere izan zitezkeen: zenbaki horrekin adierazi nahi dugu lan erraza izan zela, eta indiarren biziak munta gutikoak. Kataluniako historia bezala, AEBetakoak azaldu baitu oraindik orain Borrellek, metodo berbera erabiliz: bi topiko eta lau orokorkeria boteaz. Harrigarriena da atzerrian ez duela etxean ohikoa izaten duen txalo zaparrada jaso. Are gehiago, kazetari frankok Borrellen arinkeria eta ezjakintasuna azpimarratu dituzte. Ez dute Espainia ulertzen. Lau indiar hil, lau politikari katalan kartzelan sartu: unibertsaltasuna ez da lan gozoa. Hemen denek dakite hori. Baita ezkerreko ministro eta kazetariak ere. ■



...EMATEN DU  
LIBURUA KRISIAN DAGOELA.  
IRAKURLERIK EZ DA APENAS  
SARTZEN LIBURUTEGIRA,  
IRRATIAK ETA TELEBISTAK  
DUDARIK GABE  
ESPASIOA KENDU DIOTE...

EZ OTE DA POSIBLE  
KOMUNIKABIDEOK  
HORRELA UGALDU  
ETA ZABALDUZ GERO  
IRAKURGAITZASUN BERRIA  
ZABALTZEA, HALAKO  
ANALFABETISMO  
MODERNO...!


$$SARR_i + A \overline{DVR}$$